

**EUSKAL PRESOK.** Hainbat musikaririk ekimen bat aurkeztu dute

# Ebakuntza «zail eta landua» egin zioten Barandallari atzo, eta ZIUn dago orain

Bere neska-lagunak gaur 13:00etan jasoko du lehen mediku txostena

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Bautista Barandalla euskal presoari ebakuntza «zail eta landua» egin zioten atzo Iruñeko Bideko Amabirjina erietxean. Orain preso Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU) dago. Gaixoaren lehen txosten medikua gaur 13:00etan emanen diote bere neska-lagun Jose Camposi.

Gaizkitua duen heste lodia kentzeko bederatzi ordu iraun zuen ebakuntza egin zioten atzo Barandallari. «Dena uste bezala joan da. Ebakuntza landua eta zaila izan da», izan zen ebakuntzaren ondoren medikuek Jose Campos presoaren neska-lagunari esan ziotena. Presoa ZIUn dago eta lagundutako arnas-keta behar du. Medikuek ez dute zehaztu zenbat denbora behar duen bizkortzeko, aurretik anestesiatik nola jaikitzen den ikusi behar dute eta.

## Musikariren atxikimendua

Bitartean, Barandallari Espainiako Zigor Kodearen 92. artikulua aplikatzeko egiten ari diren ekimeni beste bat gehitu zaio. Nafarroako hainbat musikaririk presoaren askatasuna eskatzeko Nafarroako herri eta auzoetan ekimen zenbait bultzatzeko deia egin zuten Iruñean, atzo.

Ekimenarekin bat egin dute ondoko taldeok: Skalariak, Leihotikan, Berri Txarrak, THC eta Jarauta 69, eta Barricadako



Hainbat musika taldetako ordezkariak Barandallarekin bat egin dute.

## JOSE CAMPOS

Barandallaren neska-laguna

**«Ebakuntza uste bezala igaro dela esan dute medikuek. Landua eta zaila izan dela errepikatu dute behin eta berriro»**

Enrike Villarreal *El Drogas*-ek. *48 ordu euskal presoaren eskubideen alde. Bautista Barandalla kalea* lelopean presoaren askatasuna eskatzeko «lan taldeak sortu eta indartzeko» deia egin zuen guztien izenean Aitor Remon Leihotikan taldeko partaideak. Remonen iritziz, Barandalla oraindik kartzelan dago «euskal preso politikoa» delako. «Hala ez balitz, duela hilabete asko kalean zegokeen. Zigorren luzapena xantaia politikoaren fruitu da», azaldu zuenez.

Ildo horretan, espetxe politika eta sakabanaketa salatu zituen Remonek. Gisa berean, Isabel Huesa Iruñeko Espetxe

Zaintzako epaileari preso aske uzteko exijitu zion.

## Kontzentrazio ugari ostiralean

Etzi Donostian, Iruñean, Gasteizen eta Bilbon zortzi orduko kontzentrazioak egingen dituzte Barandallaren askatasuna exijitzeko. Donostian Artzain Onaren aurrean elkartuko dira, Iruñean Bideko Ama Birjina erietxean, Gasteizen Ama Zuriaren enparantzan eta Bilbon Arriaga antzokiaren aurrealdean.

Bestalde, Barandallari 92. artikulua aplikatzeko egiten ari den txandakako baraualdiko lekukoa hartu duten bost kideak lekuz aldatzera behartu zituen atzo Espainiako Poliziak. «Nafarroako auzitegitik omen zetorren agindua zekarten, segurtasun eremu batean ginela argudiatuz», salatu zuten gose grebalariek. Baraualdian dauden euskalgintzako kideek Nafarroako Auzitegiko aparkaleku publikoan hasi zuten gose-greba. Handik kanporatu ondoren, Iruñazahar euskaltegira joan ziren eta han jarraitu dute gose grebarekin.

**ESPETXE POLITIKA.** Bederatzik kontra egin dute

# CGPJ zigorrak gogortzeko proiektuaren alde agertu da

Agentziak | MADRIL

Euskal presoan espetxe zigorrak gogortzeko lege aurreproiektuaren aldeko txosten bat onartu zuen atzo Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak (CGPJ), plenoan. Hamabi bokalen oniritziarekin irten zen aurrera testua, eta beste bederatzik kontra bozkatu zuten. Enrique Lopez kontseiluko eledunaren hitzetan, lege aldaketaren «balorazio baikorra» egiten du txostenak, eta «hobekuntza teknikoak» proposatzen.

Iragan ostegunean Ikerketa Batzordean behin-behinek txostena onartu zuten. Alabaina, aldaketak egin dizkiote testuari: espetxe onurak gehieneko zigorraren arabera aplikatzeko eskatzen zen, zigor osoaren arabera izan ordez. Eta oraingo testuak ez dakar halakorik; konpondu beharreko arazo bat dagoela besterik ez dio.

Txostenean aholkatzen denez, «tresna juridikoren bat» erabili beharko litzateke «errehabilitatutako gaizki-

lea» besteengandik bereizteko. Bestalde, elkarte kriminala terminoa zehazteko eskatzen du, eta esaten du kalteordainak ordaintzea ezin dela baldintzapeko askatasuna lortzeko baldintza izan.

## Oposizioko bokalen kexua

Kontra bozkatu zuten bokalek (PSOE, IUk eta CiUk proposatuek) testua aldatu izana gaitzetsi zuten, eta boto partikularrak idatzi zituzten. Testuak Espainiako Konstituzioa «urratzen» duela azaldu zuen Luis Aguiar bokalak, bergizarteratzea galarazten duelako. Gainera, legea atzeraeraginezkoa izatea gaitzetsi zuten; Ikerketa batzordean ere puntu horregatik bozkatu zuten txostenaren kontra.

Gehieneko zigorra 30 urtetik 40ra igotzea proposatzen du PPren gobernuak, eta ETArekin kontra «aktiboki kolaboratzen» ez dutenei zigor osorik betearaztea. Legea indarrean jarri aurretik zigortutakoei ere espetxe onurak ukatu nahi dizkiete.

**PP-PSOE ITUNA.** Zigorren handitzea aztergai

# Hilaren erdialdean bilera egingo dute Ituneko kideek

Agentziak | MADRIL

Espainiako Gobernuak eta PSOE Estatu Itunaren beste bilera bat ari dira prestatzen hilaren erdialderako. Presoen zigorrak gogortzeko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (CGPJ) eta Estatu Kontseiluak idatzi behar dituzten txostenak plazaratu zain daude popularrak eta sozialistak bileraren eguna finkatzeko.

Hain zuzen ere, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusia

atzo bildu zen Zigor Kodea aldatzeko Gobernuak eginitako proposamenaz eurek eginitako txostena bozkatzeko.

PSOE zenbait zuzenketa egin nahi dizkio zigorrak erabat betetzeko eta 30 urtetik 40ra handitzeko proposamenari, batik batik bergizarteratzeari dagozkionak. Honen ildotik, Espainiako Konstituzioaren «espirituen» barruan, edozein aldaketa babesteko prest agertu da eta testua hobetzeko Gobernuarekin negoziatzen ari dira.

**Bergarako Udala**  
IRAGARKIA  
Bergarako Udala Agorrosingo udal igerilekuetako salbamendu eta sorosle zerbitzuak, eta igeri ikastaroen zerbitzua kontratatzea doa.  
Eskaintzak aurkezteko epea 2003ko otsailaren 14ko 13:00etan bukatzen da.  
Pleguak eta informazio gehigarria Idazkaritzan eta Kirol Zerbitzuan, hurrenez hurren.  
Bergara, 2003ko otsailaren 3a.  
ALKATEAK

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**  
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES  
**IRAGARKIA**  
2003ko otsailaren 6an eskatzaileen Erregistroan edo Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan (**Etxebide**) izena emateko eskarien **alta, baja, artxibatze, uko eta zuzenketak** jakinaraziko dira Arabako Lurralde Ordezkaritzan iragarki taulan argitaratuko diren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Lurralde Ordezkariren Ebazpenen bidez.  
**Argitaratzeko lekua:** Arabako Lurralde Ordezkaritza. Samaniego, 2, Gasteiz.  
**Ordutegia:** 9:00etatik 13:00ak arte eta 15:00etatik 17:00ak arte, astelehenetik ostegunera; 9:00etatik 14:00ak arte ostiraletan.  
**Errekurtsioak aurkezteko epea:** 2003/02/07tik 2003/03/07ra.  
**Eskabideen zuzenketarako epea:** 2003/02/20ra arte.

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**  
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES  
**IRAGARKIA**  
2003ko otsailaren 6an eskatzaileen Erregistroan edo Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan (**Etxebide**) izena emateko eskarien **alta, baja, artxibatze, uko eta zuzenketak** jakinaraziko dira Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan iragarki taulan argitaratuko diren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Lurralde Ordezkariren Ebazpenen bidez.  
**Argitaratzeko lekua:** Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza. Gran Vía, 85, Bilbo.  
**Ordutegia:** 9:00etatik 13:00ak arte eta 15:00etatik 17:00ak arte, astelehenetik ostegunera; 9:00etatik 14:00ak arte ostiraletan.  
**Errekurtsioak aurkezteko epea:** 2003/02/07tik 2003/03/07ra.  
**Eskabideen zuzenketarako epea:** 2003/02/20ra arte.